



# II Encuentro de jóvenes investigadores: Tecnología y sostenibilidad en el Derecho privado



**Ira. 11 2026**

**Kod. D19-26**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2026

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 11 2026

**Kokalekua**

Miramar Jauregia eta EHUko Zuzenbide Fakultatea

**Hizkuntzak**

Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



Fundación  
**BBVA**



# **Azalpena**

Europako Itun Berdearen eta 2030eko Estrategia Digitalaren esparruan, Europar Batasunak trantsizio ekologiko eta digital bikoitza bultzatzen du, sektore ekonomikoak iraunkortasun-irizpideekin, gizarte-justiziarekin eta berrikuntza teknologikoarekin eraldatzeko helburuarekin. Trantsizio justu eta digital izenez ezagutzen den eraldaketa honek ez du soilik eraginik araudi publikoan, baizik eta gero eta eragin handiagoa du Zuzenbide pribatuan; bereziki kontratazioan, erantzukizun zibilean eta kontsumitzaileen eskubideetan.

Ikastaroaren helburua da erakustea Zuzenbide pribatuak eraginik izan dezakeen eta/edo garapen sozial eta ekonomiko berrietara egokitu behar duen gero eta digitalizatuagoa den eta ingurumen-jasangarritasuna ezinbestekoa den mundu honetan, eta zer neurritan egin dezakeen.

## **Helburuak**

Ikertzaile gazteen ikerketa berritzailea sustatzea.

Ikerketa arlo berritzaileetan zabaltzea.

Mentoretza-harremana ezartzea ikertzaile gazteen eta ikertzaile seniorren artean.


Zuzenbide pribatuaren aurrerapenerako funtsezko gaietan ikerketa sare zientifikoak sendotzea.

Espainiako Zuzenbide Konparatuaren Elkarteak ikerketa originalenari saria ematea.

## **Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak**

Proyecto de investigaci3n del MICIU financia parcialmente, algunos viajes y estancias.

## Zuzendaritza



### **Esther Arroyo Amayuelas**

Universidad de Barcelona

---

Bartzelonako Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko katedraduna eta EBko Zuzenbide Pribatuko Jean Monnet Katedrako titularra. Europako eta estatuko hainbat proiektutan hartu du parte, Europako Zuzenbide Pribatuaren eraikuntzan eta garapenean sakontzen dutenak. Alemaniako DAADen (2003), Alexander von Humboldt Fundazioaren (2006-2007) eta Europako Zuzenbidearen Institutuaren (2010) kidea da; irakasle bisitaria ere izan da Estatuko, Amerikako, Europako eta Asiako hainbat unibertsitatetan. Gaur egun, Europako eta Espainiako Zuzenbide Pribatuko irakaslea da Bartzelonako Unibertsitatean, eta Kontratu Zuzenbidea irakasten du Münster-eko unibertsitatean.



### **Sergio Cámara Lapuente**

Universidad de La Rioja

---

Zuzenbide Zibileko katedraduna Errioxako Unibertsitatean (2007ko urritik, gaikuntza nazionala urte berean gaintu ondoren). 1996an lizentziatu eta sari bereziarekin doktoratu zen Nafarroako Unibertsitatean, eta 1999an Errioxako Unibertsitatean oposizio bidez irakasle titular kategoria eskuratu zuen. Ikerketa-egonaldiak egin ditu Alemanian (Friburgo, 1993, Munich, 1996), eta visiting scholar izan da Oxfordeko Unibertsitatean (2003 eta 2015). Zuzenbide espainiarrari, europarrari eta konparatuari buruzko argitalpen monografiko eta kolektibo ugarietz gain (oinordetza-zuzenbideari, kontratuari, kontsumoari, jabetza intelektualari edo zuzenbide digitalari buruzkoak), aktiboki parte hartu du Europako zuzenbide pribatua eraikitzeke prozesuan: batetik, nazioarteko ikerketa-sare ospetsuetako kide gisa, eta, bestetik, txostengile nazional gisa, Europako Batzordeak kontsumo-zuzentarau berriak berrikusteko edo egiteko finantzaturako hainbat proiektutan Espainia ordezkatzuz, bai eta Europako Batzordeak izendaturako aditu gisa ere, ondorengotzei eta testamentuei buruzko EBko erregelamendu-proiektuaren azterketa kritikoa egiteko (Londres, 2008).

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-09-11 ARTE
Orokorra	48,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	41,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	34,00 EUR
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia eta EHUKo Zuzenbide Fakultatea**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia / Manuel Lardizabal Ibilbidea, 2, 20018

Gipuzkoa